

# 11

# Durangaldea

**Amorebieta**

**Iurreta**

**Durango**

**Abadiño**

**Elorrio**



# 11



## **Durungaldea**

Bilbotik abiatuta, N-634 errepidea hartuko dugu eta gero BI-632; ibilbide luze honek Elorrioraino garamatza, bidean monumentu eta arte mailako hainbat gune interesgarrirekin topo egin ostean.



**Aurreko orrialdean:**

*Mañaria ibaia Durangoko lubaki naturala da. Santa Ana eliza eta arkuak, ibaiaren ur moteletan islatuak.*

**108. orrialdea:**

*Zornotza. Santa Maria eliza. Sakristiako gangako pintura rokokoa, beharbada ondo bururatuak, ez ordea hain ondo burutuak.*

**108. orrialdea, erdian:**

*Santa Maria eliza. Multzo errenazentista handi honetan altxatzen den dorre gotikoaren buruan kanpai-toki barroko bat dago, berau ere handia.*

**108. orrialdea, behean:**

*Santa Maria elizako sakristia. Zornotzako pinturen egile ezezagunak erruz margotu zituen arrokaila eta girlanda rokokoa.*



**Orrialde honetan:**

*Larrea. Gizakundearen Erretaula. Eskultura multzoaren kalitate jasoatik baliteke Gorterako ziharduen XVIII.eneko tailer batek egin izana.*

**Amorebieta**

Udalerri biztanletsua, bidegurutze batean aurkitu du babesa eta eraikitako paisaia urbanoa dauka, ia guztiz modernoa.

**Andra Maria eliza**

Ibaizabal ibaiaren norabidean beste aldean dago; habearte handi bat du, barruan bost tarte eta burualde alakatu estuagoa dituena, baita ere garrantzi gutxiko bi kpera simetrikoak bigarren tarteetan. Hiru portale ditu oinetan eta hegaletan, atzeko arkupea, burualdeko sakristia eta iparraldera lotutako dorrea. Gurutzeria-gangak dauzka habearteko sabaian, denak diseinu berekoak.

Kaskoa eta kaskoko portaleetako bi errenazentistak dira, antza 1556. urte inguruan egiten hasitakoak, agian Domingo Iturrietaren diseinuari jarraituta, ondoren beste hargin batzuk ibili baziren ere. Sakristia –estilo rokokoko hainbat horma-pintura dituena– 1753koa da eta Juan B. Jauregiren planoetan oinarritua eraiki zen. Dorrean –bertikaltasun handikoa izanik– fuste gotikoa eta kanpandorre rokokoa bereizi behar dira; kanpandorrea Juan Iturbururena da, 1769koa. Elizpeak, berriz, Francisco M<sup>a</sup> Agirrerena proiektua (1849) izan ziren. **Erretaula nagusia.** Estilo rokokoaurreztutako zurezko makinaria ikusgarria, bolumen handiko hainbat eskulturaren zerbitzuean; titularra aurreko erretaula batetik berreskuratutakoa da, Antonio Alloitzen lana, 1654koa. Juan Bautista Jauregik diseinatu zuen erretaula, 1743an, eta Ignazio Iberok onespena eman zion. Santanderretik etortitako erretaula-egile eta eskultoreak arduratu ziren erretaula egiteaz:

Domingo Gutierrez, Juan de Abendaño, Ramon del Solar eta Geronimo Argos. Luis Foncueva eta Juan Antonio Munarek urre kolorea eman zioten 1775ean. Duela gutxi zaharberri tu da.

**Larreako komentua**

Bide nagusia alde batera utzi eta kilometro bateko tartea bete behar da

Larreatarren –karmeldarren fundazioko patroiak– oinetxea egon zeneko tokiraino iristeko. Komentu bat sustatu zuten, eliza eta klaustroarekin batera, eta erlijio-ordena horretako fraide batzuek egin zituzten planoak 1700. urtearen inguruan. 1704an obra nahiko aurreratuta zegoen. Elizan itxuraz ez, baina kanpai-horman eta klaustroan Frai Markos Santa Teresakoak parte-hartu bide zuen.

Elizak gurutzearen forma du, ezberdinak diren bi tarte ditu, eta gurutzadura eta burualdea adreiluzko gangen bidez daude estalita. Fatxadak beheko aldean arkupe hirukoitza dauka eta goian kanpai-horma. Klaustroa ezkerreko aldean dago; korridore bakoitzeko zarpina tarte dauzka, ilargixka-gangak dituelarik.

Estilo barroko soila eta kanpoaldeko harlanduzko lanen aparailuaren edertasuna dira Larreako komentuarien ezau-garri nagusiak. **Erretaula nagusia.** Burualdea betetzen du eta zur polikromatukoa da. Mahatsondo-irudiak dituzten zutabe salomonikoak dira osagai nagusia, alde guztietatik fruitu- eta landare-sorten apaingarri naturalistak ageri direlarik. Josef Alkortak hasi zuen, ondoren hainbat eraldaketa jasan baditu ere.

**Alboetako erretaulak: San Jose eta Pragako Jesus Haurtxoa.** Bikiak dira eta gurutzaduraren aurrealdeko horma-ataletan daude. Juan Urkizak diseinatu zituen, 1767an, altzari rokoko txiki hauek.

**Santa Teresaren erretaula.** Gurutzaduraren eskuineko besoan. Aurrekoen estilo, egile eta data berberak ditu, aipagarriena: urrezko polikromatua.

**Gizakundearen erretaula.** Habeartearen eskuineko horman. Une hori adierazten duen taila ikusgarri baterako, xvii. mendeko Manuel Pereira eskultore barrokoaren obra.

**lurreta**

Elizate honen herrigunera iristeko, Durangora sartu baino lehen ezkerretara jo behar da eta metro batzuk aurrerantz egin.





#### Done Mikel eliza

Plazako eraikin nagusia, arkuetako elizpeak plazari hiri itxura ematen dio. Espazio nuklearra gurutze-formakoa da, hiru habearte eta hiru tarte dauzka, gehi burualde sakon bat, erdizirkularra. Horiez gain, elizatik bereizita eta oinetan, dorrea dago. Lauki-formako zutabeak eta ertz-gangak dira, alboko arkupearekin batera, eraikinaren estilo neoklasikoa zehazten dutenak. Erabateko errefrakzioaren emaitza –dorrea alde batera utzita– da, 1801ean egindakoa, Alejo Miranda akademikoaren proiektua izanik.

Josef Zuazanabarek diseinatu zuen dorrea, 1748an, eta Bizkaiko barrokoaren osagaien artean ederrenetarikoa da. Masta meheak eta kanpandorre dotoreak –gainean kupula duela– tenpluaren garaiera soberan gaintitzen dute, tenplua bera masa estatikoagoa izaki.

Ez du aitzinako ondarerik gorde, etzanda dagoen Kristoren irudia izan



ezik, zur polikromatuan landutako taila erromanista bat (1610. urte ingurukoa), genero horretako Bizkaikoen artean onenatarikoa.

### Durango

«Villanueva de Tavira» izena hartuta, 1297. urte inguruan lautada baten erdian zegoen bidegurutze batean finkatu zen. Orduetik hona Durango etengabe hazi da.

### Hirigintza

Gutun-hiria lortu zuen herri honek merkataritza, artisautza eta zerbitzugintzarako bokazioa hartu zuen eta bere hiru (geroago lau) kale zuzenak iparraldetik hegoaldera antolatu zituen, kantoï bakarrak (Zehar kaleak) zeharkatuak. Portaleak eta harresia izan zituen, hegoaldetik izan ezik, hortik Mañaria ibaiaren ur-hobiak defendatzen baitu. Bizkaian oso bitxia da frantziar «bastide» estiloko hirigune honek ertze-tan bi plaza edukitzea, Andra Maria eta Santa Anarena, bakoitza bere elizarekin. Harresitik kanpo, Kurutziazagako errebaletxekin, sute eta ezbehar ugari jasan behar izan dituen hirian bat egiten duten bide historikoen norabidea zehazten dute.

### Uribarriko Andra Maria eliza

Eraikin handia, biografia zailekoa; bost tarte dituena habearte zabalekoa, gehi alboetako beste bi estu eta burualde zabal alakatua. Zatiirik zaharrena, gotikoa eta xv. mende amaierakoa, burualdearen eskuin aldetik eta alde horretako habeartetik ikus daiteke. Gainerakoa 1622ko data duen zaharberrikuntza handiaren emaitza da, estilo barroko klasizistakoa, gurutzeria-gangen sistema zaharra berreraiki eta oso aberatsa zen korua berriro aprobetxatu zuena.

Planoen egilea Juan Urizarzabala hargina izan zen, eta obraren zatiirik handiena sustatu zuena Sebastian Zarraga enpresarioa; Juan Ansolak entregatu zuen obra handi hau 1654ean.

Oinetako arkupe handia aurreragokoa da, eta ondoko teilapeko arkupe zabal-zabala, arotzeriako ingeniariartzako obra garrantzitsua dena, Bixente Arrien arotzak konpondu zuen 1678an.

Espainiako gerra zibilean kalte handiak jasan zituen, baina kalte horiek konponduta daude. Horrez gain, parrokiari buruzko museo txiki bat egokitu da.

**Erretaula nagusia.** Bere generoan, Bizkaiko lan erromanista nagusia izango da, hiru solairukoa, pedrela eta bigarren pedrelaren gainean eta bost kalekoa, landarez hornitutako zutabetan egituratuta, Gaztelako erromanismo hoberenean egin bezalaxe. Etxeak, taila oso marduleko eskultura eta erliebeetarako dira, horietariko batzuk xviii. mendean ordezkatuak izan zirelarik, eta asko 1912an egindako zaharberrikuntzan ukituak. Martin Ruiz Zubiate izan zen jatorrizko egitarau handiaren eta altzari osoaren egilea, 1578an hasita. Pedro Guilleron Madariagak egin zuen jatorrizko polikromia, 1674an. Uribarriko Ama Birjina, xiv. mendeko Andra Mari gotikoa, behin baino gehiagotan ukitutakoa, eta beheko Gurutzea, 1520. urte ingurukoa, ez dira multzo horretakoak. Erretaula orainsu zaharberritu da.

### Udaletxea

Artekalen. Gerra zibilaren ostean berriro eraikitako udaletxean gehien nabarmentzen den osagaia goiko solairuetako pinturak dira, musika-tresnak jotzen ari diren musikarien, itxurak egiten dituzten arkitektura-irudiez osatutako frontoien gainean eserita, irudiez apainduta; irudi horiek Ignazio Zumarragak egin zituen, 1770ean. Eloi Garaik eraberritu zituen duela hirurogeita hamar urte. Arkupearen maila lehenagokoa da, El Escorial-en lan egin zuen Martin Iburguen (1570) harginaren apaindura gutxiko lana.



#### 110. orrialdea, goian:

*Durango. Uribarriko ataria. Sabaia egurrezko egitura bikaina da, inguruko arotz baten lana.*

#### 110. orrialdea, behean:

*Uribarriko korua lehenagoko eliza bateko ondare da. Haren azpiko arku eskartzanoa xehe-xehe landuta dago.*

#### Orrialde honetan:

*Koruaren xehetasun bat: eguzkia ere ageri da izarrez jositako arkuarte honetan. Badaude, gainera, lan markodunak, gorputz enborrak eta abar, Errege Katolikoak estilo oparo eta sarriaren oroigarri.*



### Santa Ana plaza

Funtsean bi osagai dira hemen bat egiten dutenak: Santa Ana eliza eta izen bereko arkua.

**Santa Ana arkua.** Harresiko atea, erdi-puntuko pasabidea duena, eta goi-goian kanpai-horma bat, eskailera kiribilek zulatutako dorre txiki biren artean, plazaren gaineko balkoki-behatoki txiki bateraino eramango gaituena; balkoi horren gainean koroaren armarria dago, 1566koa, baita irudia gordetzen duen horma-hobia ere. Juan Erdoziak diseinatu zuen osagai eder hori, 1744an.

**Andra Mari eliza.** Eraikin handiak, mailakatutako hiru habearte ditu eta hiru tarte gehi gurutzadura eta kapera nagusia. Barruko soiltasuna eta kanpoaldeko bolumenen maklen purutasuna, goiko horma-bularrekin batera, dira gehien nabarmentzen diren osagaiak. Dorrea, berau ere apaindurarik gabea.

Lazaro La Incerak egin zituen ornamentu-apaindura handirik gabeko aukera barroko honen planoak, 1722an.

### Kurutziagako Gurutzea

Izen bereko errebalean, Durangoko ikur bilakatu da. Bakartua, aurrealdea, atzealdea, danborra eta fustea dauzka, xv. mendearen amaierako Erdi Aroko irudiz beteta: kalbarioa, apostoluak eta jatorrizko bekatua, hurrenez hurren. Bekatuak garbitzeko omen den gurutzearen balio sinbolikoak irudiaren zabalkundea bultzatu du.

### San Agustin multzoa

Mañaria ibaiaren ondo-ondoko lerrokadura, jauregi batzuk eta San Agustin komentua inguruko multzoa biltzen dituena.

**San Agustinek** bi zati ditu: eliza eta egoitza (orain zaharren egoitza). Tenplu noblea, behe-kaperak dituen habearte bakarreako, gehi gurutzadura eta kapera nagusia. Erdiko kupula izan ezik, gainerako guztia gurutzerian dago estalita. Eraikinaren aurrealdean, fatxada handi bat dago, behealdean arkuen bidez,



bidera begira, osatutako arkupea duela. Juan Ansolak egindakoa da (1662).

1998az geroztik eliza kultur erabilere-tarako aretoa da.

Jauregiei dagokienez, berriz,

**Bruno Maurizio Zabalaren** jaiotetxea izan zena (xvii. mendekoa) baino, **Etxezarreta** jauregia da interesgarriena, bolumen handikoa eta bakartua baina lorategiarekin, barroko jauregieta arkitekturaren edukien arabera. 1760. urtekoa da eta 1984az gero Durangoko Arte eta Historia Museoren egoitza da. Hiriko agiritegi edo artxibo historikoaren egoitza ere bada.



#### 112. orrialde:

*Durango. Kurutzia gako Gurutzea. Ugariak dira Bernat Erdi Aroko irudi mezudunak eta sakratuak.*

#### Orrialde honetan:

*Tabira. Koruan karelaren zursareak, bertako arotzek 1540 inguruan eginak, bi sarraila-zulo ditu.*

#### Tabira

Tabiran, Durango hiri-inguruan, bi alde ezberdin bereizi behar dira: Done Petri eliza eta elizari itsatsitako Arrosario ermita.

**Done Petri eliza.** Espazio angeluzuzena, ganga-mailako bi tarte berdinetan zatituta, giltzarri batean uztartzen diren gurutzadurako nerbio zabalen sistema.

Eskuin aldetik, arku-formako leiho oso zarpailek argitzen dute giroa, eta aipagarria da bebarru aldeko palma-itxurako piezen sarrera dobelatua.

Elizan, ondoren itsatsi zitzaionarekin komunikatzeko, portale bat dago, atezangoak eta dobelak dituena, era gotikoan, barrualderantz jarrita, eta horrek orientazio-norabidea aldatua duela uste izateko susmoa sortzen du.

Oinetan zurezko korua dauka, ohol mihiztatuetan hustutako saretetako –sarraila-begi erregistro bi–karela eta diamante-puntez apaindutako eskubanda dituena.

Eraikin gotikoa, 1500. urte ingurukoa, tradizioak nahi baino urte gutxiago dituena, eta korua 1540. urte inguruko arotzeria autoktonoaren bertsioa, Bizkaian hain arraroa ez dena.

Egun benetako museoa da Tabira, hainbat estilo eta garaitako piezak metatuz joan zaizkiolako. Aipagarria da pintatutako erretaula nagusia, xvi.

mendearen amaierako errenazentista, Arrosarioko misterioen istorioez apaindua; ez dago honi buruzko agiririk. Bestetik, **Bosgarren Larritasuna** zizelkatua duen triptiko errenazentista bat ere badago, baita ere tailatutako erretaula gotiko berantiarreko predela bat, Erdi Aroko **bainuontzi-sarkofago** bi, antzinako hainbat irudi...

**Arrosario ermita.** Handia, sei tarte eta gurutzadura-gorputza eta kapera nagusia dituen habearte bakarrekoa, horiek kupula eta ilargixken bidez estalita. Santutxo baten ondorengoa (aurreko alde burdinazko hesi batez dago itxita), xviii. mendean eraiki zen, Done Petri eliza zaharrari lotuta.

Urreztatutako zurezko **erretaula nagusiak**, rokoko deritzon estiloko konplexutasuna janzten du oinplanoan eta altxaeran. Eta erdiko trouan Arrosario Ama Birjinaren taila mehe-mehe bat, Cadizen bizi zen durangar batek 1737an emandakoa; pertsona bera izan zen, handik urte gutxira, erretaula osoa ere ordaindu zuena.

#### Abadiño

Elizate luzea, hainbat eta hainbat ondare-osagai interesgarri dituena, zibilak nahiz erlijiozkoak.

#### San Trokaz eliza

San Torkazen (San Torkuatoren) metatesia, tenplu hau oso handia da, habearte zabal-zabal bat du, eta alboetan beste bi askoz estuagoak, ia-ia korridore hutsak direnak. Lau tarteetatik, lehendabizikoa da luzeena –lauki itxurakoa– eta oinetan dorre bat dauka itsatsia. Zuzeneko nerbioetako izardun gangek estaltzen dute dena, eta horma-bularrak barrurantz erortzen dira, eraikini duen masa-itxura sorraraziz.

Egin zeneko datari eta egileari begiratuz gero, hizkuntza eta espazioari buruzko planteamendua oso tradizionalak dira, berez eliza errenazentista bati dagozkionak, garaiera guztian horma-hobiko kaperak dituzten



horietarikoak. Ignazio Iberok diseinatu zuen 1762an, baina dorrea 1732ko data zuen aurreko tenplutik berrerabili zen, Juan Erdoizaren planoetan oinarrituta.

**Erretaula nagusia.** Burualdea da osagai nagusia, estiloz rokoko berantiarrekoa, harrinabarreko polikromatua izanik, eta neoklasizismoaren aitzindaria da. Badu egin zeneko data: 1782, Juan Urkizak egina. Erdiko ornamentuak, San Torkuatoren taila txiki baterako, aldaketa batzuk izan ditu.

**Alboko erretauletan** bikiak, Arrosarioko Andra Mariaren eta San Blasen omenezkoak, eta Jakobo Jauregik diseinatutakoak bigarrenaren taila (1689) berriro erabili da.

### Hilerria

Bizkaiko neoklasiko berantiarrean oso ohikoa den kanposantua: lorategi santua, beren baitan hilobiak hartzen dituzten teilatupeko korridoreez inguratuta. Bitxiak dira taulamenduari eusten dioten zutabeak, baita diseinu noblea ere, fatxada –portale eta guzti– barne. Rafael Zabalaren proiektua, 1854koa.

### Jauregi-dorretxea

Errepidearen eskuin aldearen ondoan, Zelaieta gunearen aurrez aurre, bolumen kubiko handikoa, lau isurkiko estalkiarekin, sortalderako harlanduzko fatxada du, erregularizatua eta baoen aldean horma osoak nagusi direlarik. Aipatzekoa da sarbidea, dekorazioaren kalitate manierista dela eta: kanaldun pilastra markatzaileak eta katetan geometrizatutako ateburua, 1591ko inskripzioa duena.

### Muntsaratz dorre-jauregia

1510. urte inguruan esparru lau eta biribilaren erdian eraikitzeko asmoa sortu zenean, ohiko landa gotor-dorrea Durangoko Gisasa familia izan zen, oinetxea erosi eta 1637an hargin ezagunei (Arriluzeaga, Errementeria, Silloniz...) dorrearen birmoldaketa agindu ziena. Erdi-puntuko sarbide dobelatuaren



gainean eta sortaldeko horma-atalean albo batean dagoen armarriak hauxe dio hizki gotikoetan: «*Estos biben e bibieron goardando la fama que tobieron*». Ospe ona, bizimoduaren arau. Muntzaratzi egun beste erabilera bat eman zaio.

### Elorrio

Bizkaiko ekialdeko ertzeko udalerria eta hiri monumentala. Bi parrokia elkartzearen ondorioa, batetik Andra Maria Sortzez Garbiarena, Tello jaunaren eskutik 1356an forua jaso zuenean toki horretan eraikitakoa, eta bestetik Etxebarriako San Agustin izenekoa, toki honetan lehendik zegoena eta horren jurisdikzioan sortu zen Elorrio.

### Etxebarriako San Agustin eliza

Oinplano angeluzuzen luzexka, lau tarte dituena, ia lauki-formakoak eta burualde estuagoa, eta nerbio erraldietako gurutzeriako estaldura. Eliza inguratuz, zutabeen gaineko teilapeko atari perimetrala, eta bertan kanpaietarako dorre garai bat eta hiletetarako kapera txiki bat (Done Martie eta Santa Marina).

1053an aipatutako monasterio berria erabat desagertuta dago, eraikina xv. mendearen amaierakoa izango baita, gotikoa, baita agertu berri diren hormen gaineko pintura delineatu gorri-horiak ere. Arkupeko kapera ere estilo horretakoa da eta dorrea, berriz, barrokoa, 1742an amaitua.

**Erretaula nagusia.** Oinplano zuzenean tailatutako obra garrantzitsua, hiru solairu gehi atikoa eta pedrela eta bost kale dituena. Dena polikromatua eta, geroago jarritako irudiren bat eta San Agustinen taila izan ezik, berau zaharragoa baita –gotikoa–, gainerakoa «errumarar erakoa» da, xvi. mendearen hirugarren hamarkadaren amaierako errenazentista.

**Alboetako erretaulak, Arrosario eta Santa Monika,** Martin Olaizola erretaula-egilearen eta Martin Allanegi eskultorearen egiazko mazoneria polikromatu barroko bikainak dira, 1693koak.

### Hirigintza

Beste hiri batzuen antzera, Elorrioko jatorrizko hirigintzak Erdi Aroko arrazionalismo jasotzen du, etxeak bi kaleren paraleloan dauden kaletan –Erreka eta Telmo jauna– antolatzen baititu, gero kantoik batek kaleok mozten dituelarik. Herrigune hori azkar geratuko zen zaharkitua, trafikoa eta jarduera nagusiak bidei jarraituz sortutako errebaletara aldatu zirelarik: Suso (egun Berriotxo), San Fausto (orain San Pio x. a), eta hiriaren paraleloan hasitako San Roke (Elizburu) eta Urarka errebaletara, horiek jauregiz betetzen joan zirelarik.

Garrantzizkoenak xvii. mendean daude dokumentatuta, jauntxoan egoitzak izanik, Andaluziatik Amerikara egindako merkataritzaren edo Espainiako armadetarako intendentziaren bidez aberastutako elorriarrek bildutako diruari esker eraikiak. Horiatariko batzuk hauek dira, Santa Ana plazatik hasita: Arespakotxaga Medibil (1632), Arespakotxaga Azkarraga edo «Txintxirri» (1672, Juan Bautista Aldariaga), Igartza, udaletxeari itsatsia (1600 ingurukoa), Jara etxea edo Zearsolo (1650), Arriola (1625), Lekerika-Osa (1633, Juan Errementeria), Tola (1677, Juan Bautista Aldariaga), Lariz (1667, Juan Bautista Aldariaga eta Martin Garaizabal), Aldapebeitia edo Belarroa, (1694, Domingo Urizar),... sartalderako eguterekin. Etxe honen noblezia mende bat lehenago hasita zegoen, errenazimentuan bertan: San Pio x. a kalea, 17 eta 19. zk.ak; Urarka, 6. zk.; Berriotxo, 14. zk.; Arabio jauregia (1570 ingurukoa), elizaren inguruan, eta abar. Eta, motelago bada ere, xviii. mendean jarraitu zuen (Esteibar-Arauna jauregia, Urarka kalean). Elorrio monumentu eta jauretzez beteriko hiria da.

**Andra Maria Sortzez Garbia eliza** Altura bereko hiru habeartetan –erdikoa askoz zabalagoa da– antolatutako itzelezko espazioa: hiru tarte eta mailakatuta-ko burualde poligonal dauzkana.

#### 114. orrialdea, goian:

*Etxebarriko San Agustin. Errotulu okre kolorekoak («al nombre de dios legarreta») herriko pintzelari xume bat aipatzen du.*

#### 114. orrialdea, erdian:


*Etxebarriko San Agustin. Ganga. Elizako ganga gotikoak konplexuago bihurtzen dira geroagokoa den azken tartean.*

#### 114. orrialdea, behean:

*Etxebarriko San Agustin. Azken gotikoko marrazki xumeak: txori ikaragarria, petrus-a, ihs eta aingerua, azken hori argimutil oinduna eta gurutzea dauzkala.*

#### Orrialde honetan:

*Abadiño Muntzaraz Dorrea. Behe solairuak itxura militarra izan arren, goikoetan galeria moduko bizitokiak daude, soroen aldera begira.*



Nerbio zuzen eta makurren –landutako sasigiltzarriekin– ganga-sistema konplexua, lau zutabe korinto luzeren gainean dagoena. Goiko aldean, hormei lotuta, eskualdeko beste tenplu batzuetan ere ageri den balkoi txiki bat du. Leihoak errenazentistak dira, sarbide biak, ordea, ez; horiek zaharragoak dira, gotikoak, xv. mendearen amaierakoak. Dorre ederra, xvii. mendekoa, Andaluziako arkitekturaren ezaugarri nabarmenekin.

Hasieran 1459 eta ondoren 1506 –inskripzio baten arabera– tenplu gotiko bat hasi ziren eraikitzen hemen, hurrengo mendean egun nagusi den zutabedun espazio bateratu errenazentista hau bilakatzeko. Paskual Iturriza eta ondoren Andres Meñaka eta Rafael Garaizabal (korua, 1623) izan ziren egundoko obra hau burutu zutenak. Kanpandorra, 1672an amaitu zen.

**Erretaula nagusia.** Diego Martinez Arce, gorteko plano-egileak, diseinatu zuen 1754an erretaula hau, rokoko deritzon estiloko Euskal Herriko monumentaletakoa. Tailak, Silvestre de Soriak diseinatu zituen eta Juan Antonio Ontañon eta Juan Munar-ek zizelkatu, ondoren Antonio Ximenez Etxabarririk urreztatu zituelarik. Monumentuaren itxura hori da bere ezaugarri nagusietako bat, eskulturaren kalitatea ahaztu gabe, jakina. Hala ere, ohartarazi egin behar da bigarren ataleko zutabe salomonikoak, Alberto Churriguerak 1719an diseinatu zuen erretaula zapuztu batetik hartu eta berrerrabili egin direla.

**Alboetako erretaulak, San Andres eta Arrosarioko Andra Mariarena,** bikiak dira eta proiektu berekoak, Silvestre de Soriak 1759an egindakoak.

**San Gregorio Nanciancenen erretaula.** Eskuineko horman, dituen tailengatik –titularra izan ezik– eta egituragatik, eskultura naturalistaren eta erretaula klasizistaren adibide ona da, 1635. urte ingurukoa.

**Berriotxoaren aldarea.** Hormako hilobi-monumentua ikusgarria, Asiako oihartzun eta kolorez beterikoa, 1861ean



**Orrialde honetan, ezkerrean:**  
**Elorrioko Sortez Garbia.** Bere ezaugarriengatik (bolumenak, koloreak, etab.) Dorrea exotikoa gertatzen da Bizkaian, eta Andaluziako barrokoaren zantzuak ere antzematen zaizkio.

**Orrialde honetan, eskuinean:**  
**Elorrio. Iturria.** Hiri tresneriaren ale baliotsua. Kareharri grisezko txorrota arrokaila-plaka rokokoekin apaindu zuten.

**117. orrialdea, goian:**  
**Argiñeta.** San Adrian ermita ondoko zelaian, hilobi eta hilarrien irudi paregabea.

**117. orrialdea, behean:**  
**Hilobiko epitafioan:** «IN DEI NOMINE MOMUS IN CORPORE BIBENTE / IN ERA DCCCXXI MI FECIT / IC DORMIT.».





Tonkin hirian martirizatutako San Balen-  
din Berriotxoaren omenez. Manuel Maria Smith eta Marcelino Arrupe arkitektoek 1908an diseinatu-  
a, Maumejean etxearen eta Basterra eta Larrea eskultoreen laguntza izan zutelarik.

**Udaletxea**

Elizaren aurrean, plaza osatuz. Arkupe-  
dun eraikin handia, balkoi korrituarekin,  
Euskal Herriko XVII. mendeko ohiko  
formula dena, gehienak baino aurrera-  
gokoa. 1666. urte inguruan egina,  
beharbada Juan Batista Aldariagaren  
planoetan oinarrituta. Inskripzio biak  
eta Borbondarren ezkutua, Gabriel  
Kapelastegik jarri zituen 1775ean.  
Okertzeko bidea eman dute.

**Iturria**

Berau ere plazan dago, aska poligonal-  
a dauka eta erraboiakarakadun iturria,  
uhinen efektua egiten duena, kareharri  
urdinezko harri-hondarrezko plakaz be-  
teta. Hiri altzarien artean, Bizkaian gutxi  
egongo dira hain noble eta zaharra denik.  
Ignazio Iberoren diseinua du, 1757koa.

**Kurutziagako Gurutzea**

Suso errebaletako bidegurutzean,  
monumentu honek XVI. mendean  
hasierako (1520) gotiko berantiarren  
hainbat osagai estilistiko dauka: enbor  
hutseko moldurak, zutabetxo zuzenak  
eta fronda fustean, arku konpialak  
danborrean, potentziak gurutzean...  
Maila jasokoa da, Elorrio eta inguru-  
etan dauden beste guztiak baino gehiago.

**Santa Ana komentua**

Lariztarren familiak egindako gonbitea  
onartuz, Ermuko Santa Margarita  
komentutik etorrira, domingotar  
lekaimeak Elorrioko harresitik kanpo  
finkatu ziren, garai batean Santa Ana  
ermita egon zen tokiaren inguruan.  
Ordurako komentua funtsezkoena  
prest zegoen, Elorrioko Agustin Ruiz  
Azkarraga (1692) harginari enkargatu  
baitzitaion komentua egiteko obra.

Emakumezkoen komentuei ezarritako  
barroko neurritsuaren formulazio bildua  
da eliza hau: hiru tarteko habearte bat,  
gurutzadurako eta burualdeko gorputza,  
eta sabaian ilargixkadun gangak. Oinetan  
beste tarte bat gehiago dauka, eta berru  
bat, arkuen bidez kanpoaldera irekia.

**Erretaula nagusia.** Urreztatutako zuraz  
egindako makina ederra, rokoko estilo-  
koa, oinplano eta altxaera mugitukoak.  
Parrokiako erretaula nagusiari asko zor  
dio, eta hartan lan egin zuen taldeari lepo-  
ratu beharko zaio lan honen egilea izatea.

Komentuaren barruan eraikitako  
**Berriotxoaren museoan**, santu domingotar  
honen oroigarri ugari daude gordeta.

**Argiñeta**

Ibilbidea amaitzeko Argiñetako San  
Andres ermitaren aurrean, kanpoan,  
dagoen Erdi Aroko zelai nekropolia  
ikus dezakegu, Elorriotik kilometro  
batera, gutxi gorabehera. Han, zuhaitzen  
azpian, harearizko hogeitabat hilobi  
daude bilduta, estalki eta guzti, baita  
hainbat hilarri ere. Kristautasunak  
Euskal Herrian izan zituen hasierei buruz  
mintzatuko zaizkigu, baina gai hori jada  
eztabaidatuta dago. Goiz Erdi Aroko  
direla ematen du, behin 883 urteko  
inskrizioa agertzen delarik. Argiñetak,  
dena dela, magiaren erakargarritasuna  
dauka: sarkofagoen estalkiek ezkutua-  
ren misterioa estaltzen jarraitzen dute.

